

ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIA: EDUKIEN EDIZIOARI ETA KUDEAKETARI, NABARITASUNARI ETA POSIZIONAMENDUARI BURUZKO TXOSTENA (2023)

2024ko urtarrilaren 2a

Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza
Osasun Saila
Eusko Jaurlaritza

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
2.	EKIMENAREN SORRERA ETA BILAKAERA	3
3.	EDUKIEN EDIZIOA ETA KUDEAKETA.....	5
3.1.	ETIKETEN KATALOGO ESTANDARIZATUA: EDUKIEN BERRIKUSPENA ETA ESTANDARIZAZIOA	6
3.2.	ARRETA SOZIOSANITARIOAREN BULETINA HEDATZEKO ZERRENDAK	7
4.	POSIZIONAMENDUA ETA NABARITASUNA.....	8
4.1.	ATARIKO EDUKIEN KONTSUMOA: BISITALDIAK ETA BISITATUTAKO ORRIAK	8
4.2.	BALIABIDE SOZIOSANITARIOEN MAPA	13
4.3.	WEB-IRISGARRITASUNEN IRIZPIDEAK.....	16
4.4.	POSIZIONAMENDUA GOOGLE.ES-EN	17
5.	ONDORIOAK	20
	ESKERRAK EMATEA.....	22

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak txostena egin du hirugarren urtez jarraian, Arreta Soziosanitarioaren Atarian 2023an egindako jardueren berri emateko. Atari hori da EAEko arreta soziosanitarioari buruzko ezagutza sustatzeko eta zabaltzeko webgune instituzionala.

Osasun Sailak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak batera kudeatzen duten ekimena da Arreta Soziosanitarioaren Ataria. 2016ko apirilaz geroztik, astean behin eguneratzen ditu ataletako edukiak. Gaur egun, *2021-2024 aldirako EAEko Arreta Soziosanitarioko Estrategiaren* 5. arloan kokatzen da ekimena, eta EAEko ekosistema soziosanitarioaren barruan ezagutza sortzeko, partekatzeko eta transferitzeko diseinatuta dago.

Ekimena abiatu zenetik zazpi urte igaro ondoren, Arreta Soziosanitarioaren Ataria erakundeek EAEko koordinazio soziosanitarioko ereduarekin hartutako konpromisoaren erakusgarri bikaina da, eta agerian uzten du, batik bat, ezagutza dela berrikuntzaren eta ekosistema soziosanitarioak behar duen eraldaketaren giltzarria.

Txosten honetan xehatu dira EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak prospekzioan eta zaintza estrategikoan 2023an egin dituen lanak, bai eta Arreta Soziosanitarioaren Atariko edukien edizioan eta kudeaketan egindakoak ere, atariaren bidez ezagutza zabaltzeko eta sustatzeko. Horrela, hurrengo orrialdeetan, Atariko ataletan 2023an sortu eta argitaratutako edukiei buruzko informazioa ematen da, eta, horiekin, zenbait emaitza-adierazle ere bai, plataformak 2023an web-unibertsoan lortutako posizionamendua eta nabaritasun-maila erakusten dutenak.

2. EKIMENAREN SORRERA ETA BILAKAERA

Proiektu honen jatorria *Arreta Soziosanitarioko Ildo Estrategikoak (2013-2016)* dira. Dokumentu estrategiko horrek, *2. ildoan (Informazio eta komunikazio soziosanitarioko sistema)*, webgune bat diseinatu eta martxan jartzea proposatzen zuen, informazio estrategikoa, gaurkotasun-gaiak eta EAEko herritarrentzako arreta soziosanitarioko baliabideen zerbitzu-informazioa aurkezteko.

Izan ere, baliabide soziosanitarioei buruzko zerbitzu-informazio hori da Arreta Soziosanitarioaren Atariaren ernamuina. 2015ean, horiei buruzko oinarrizko informazioa iragartzeko asmoz, informazio-egitura zabalago bat garatzeari ekin zitzaion; web-plataformaren formatua izango luke bi helbururi erantzuteko: herritarren arreta soziosanitarioko beharrei erantzuten zieten baliabideei buruzko informazioa eskaintzea eta, orobat, aditzaera ematea EAEko arreta soziosanitarioko ereduaren bereizgarriak, hots, gizarte- eta osasun-zerbitzuen sistemen lankidetzeta eta lan koordinatua.

Horrela, Arreta Soziosanitarioaren Atariaren hasierako bertsioak hainbat eduki-atal zituen, EAEko Baliabide Soziosanitarioen Mapaz gain.

2016ko apirilean lehen aldiz argitalpena egin zuenetik, aldatu egin da Arreta Soziosanitarioaren Atariaren web-arkitektura, batik bat, atalak egokitu direlako, eta berriak gehitu zaizkiolako (Buletina eta Iritzia, besteak beste) identifikatutako komunikazio-beharren arabera.

Ildo horretan, azpimarratu behar da 2017ko maiatzean, Arreta Soziosanitarioaren Atariaren edukien edizio eta kudeaketako lanekin jarraitzeaz gain, Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak proiektu bat abiarazi zuela edukien argitalpena optimizatu, eta posizionamendu digital naturala (SEO) eta atariak sarean duen nabaritasuna hobetzeko. Egungo Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzako (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) teknikariekin lankidetzan, 2017ko ekainean SEO posizionamenduari buruzko azterlan bat osatu zen. Ondorioz, aldaketak egin ziren plataforma instituzionalaren URLan eta meta-deskribapenean. Orduetik (2017ko ekaina), Arreta Soziosanitarioaren

Ataria jarraipen analitikoaren mende dago. Hori dela eta, web-posizionamendua hobetzeko ahalegina sendoagoa da.

Edukiei dagokienez, 2016tik aurrera, Arreta Soziosanitarioaren Atariak indarrean dagoen esparru estrategikoari buruzko informazio eguneratua eskaintzen jarraitu du (*Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoak —2017-2020—*, eta berriki, *EAEko Arreta Soziosanitarioko Estrategia —2021-2024—*), bai eta gaurkotasuneko informazioa (funtsean, albisteak, ekitaldiak eta erreferentzia-dokumentuak), EAEko Baliabide Soziosanitarioen Mapari buruzko informazioa eta egoeran egoerako informazioa, esaterako, COVID-19aren epidemiari eta horren ondorio soziosanitarioei lotua.

Informazio estrategikoan beharrezko ziren eguneratzeak egiteaz gain eta plan eta proiektu soziosanitarioak bete eta ebaluatzearen ondorioz egindakoez gain, 2016. urteaz geroztik, bi eduki-ekarpen nabarmen egin dira Arreta Soziosanitarioaren Atarian: lehena, 2017an, Arreta Soziosanitarioaren lehen buletina osatzeko hiruhilekoko albisteak bildu eta argitaratuz (2017ko abenduan zabaldu zen), eta, bigarrena, berriagoa, baliabide soziosanitarioen mapako informazioa eguneratu eta berrikustea 2021ean eta 2023an; hartara, 2023an, baliabideen mapa berriagoa eta bigarren bertsio eguneratua izatea lortu da.

Era berean, 2022an, Arreta Soziosanitarioaren Atarian argitaratutako edukien tratamendua estandarizatzeko lanari ekin zitzaion, eta horrekin jarraitu da 2023an ere. Horretarako, eduki horiei lotutako etiketak esleitzeko prozesua berrikusi eta homogeneizatu da. Helburua da hiztegi elebidun kontrolatu bat izatea (gaur egun 900 termino baino gehiago ditu), bilaketak eginez edukiak modu eraginkorragoan berreskuratzeko eta, oro har, Atariko edukiak web-igurunean hobeto kokatzeko.

3. EDUKIEN EDIZIOA ETA KUDEAKETA

Informazio-plataforma den aldetik, Arreta Soziosanitarioaren Atariak edukien edizio eta kudeaketak egin behar ditu astero, eta lan hori egitea ezinezkoa litzateke EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak eguneroko egiten duen **prospektiba eta zaintza estrategikoko lanik gabe**.

EAEko ekosistema soziosanitariorako interesgarriak diren edukiak identifikatzeko —nazioarteko joerek toki nabarmena hartzen dute hor—, taldeak hileroko edukien proposamen bat egiten du Atariko argitalpenak horretan oinarrituta prestatzeko. Astero eta formatu elebidunean, edukiak Platea gobernu-plataformaren bidez editatzen dira, ondoren argitaratu eta zabaltzeko.

2023an, Arreta Soziosanitarioaren Atariak gaurkotasuneko erreferentziak (albisteak) argitaratu ditu, eta astero helarazi zaizkie Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioko arduradunei eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari (Eusko Jaurlaritza), erreferentzia-dokumentuekin (astean lau argitaratu dira, gutxienez) eta agenda-kontuekin batera (astero gutxienez bi ekitaldi argitaratu dira). 2022. urtean ez bezala, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoerak hobera egin duenez, 2023ko hasieratik COVID-19ari buruzko prebentzio-neurriei, kasuen kudeaketari eta abarri buruzko erreferentzia gutxiago argitaratu dira esparru soziosanitarioan, eta, beraz, atarian argitaratutako erreferentzia dokumentaletatik modu berezian zenbatzeari utzi zaio.

Hemen, 2023an, Arreta Soziosanitarioaren Atarian edukiak egiteko eta argitaratzeko jardueraren laburpena:

1. irudia **ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIKO EDUKIEN JARDUERA (2023)**



Iriduak FLATICON.COM-EKO baliabideekin diseinatu da.

Iturria: Geuk egina

Hiruhileko bakoitzean argitaratutako albistekin Arreta Soziosanitarioaren arloko lau buletin kaleratu dira ([22.](#), [23.](#), [24.](#) eta [25.](#) aleak). Hiru hilean behin argitaratu dira Arreta Soziosanitarioaren Atarian, eta posta-zerrenda luze batera bidali dira –2.900 kontu hartzailetik gora–.

2023an Arreta Soziosanitarioaren Atarian, hainbat ataletan edukiak sortzeko egindako jarduera-kopuruari dagokionez, adierazi behar da 2022an egindakoaren antzekoa dela. Hala ere, nabarmentzekoa da 2023an argitaratutako ekitaldi-kopurua nabarmen handitu dela (bai orokorrean, bai udako unibertsitate-ikastaroei buruzko argitalpen espezifikoak). Gainera, 2023an egindako jarduera 2021ekoarekin alderatuz gero, argitaratutako dokumentu-erreferentzien kopurua handitu egin da, ia berrogeita hamar bat gehiago 2021ekoaren aldean.

2023an zehar, Arreta Soziosanitarioaren Atarian, proiektu estrategikoei buruzko informazioa eguneratzeko lanak ere egin dira (*Plan eta proiektuak* atala); argitaratutako edukien tratamendua berrikusten eta estandarizatzen jarraitu da, hiztegi elebidun kontrolatu eta etengabe eguneratua edukitzeko; Arreta Soziosanitarioaren Buletinaren [22.](#), [23.](#), [24.](#) eta [25.](#) zenbakien hedapen-zerrendetan sartutako posta okerrak edo desgaituak garbitu dira, eta 2022ko¹ irailetik 2023ko irailera arreta soziosanitarioaren buletin bakoitzaren hedapen-prozesuari buruzko txostenak egin dira.

3.1. ETIKETEN KATALOGO ESTANDARIZATUA: EDUKIEN BERRIKUSPENA ETA ESTANDARIZAZIOA

Etiketen katalogo estandarizatua (2022) barne-tresna bat da, elebiduna (euskara-gaztelania), edukiak ezaugarritzeko eta sailkatzeko egina. Katalogoa garatu da edukien tratamendua homogeneizatzeko, etiketatzeak hobetzeko, web-ingurunean Arreta Soziosanitarioaren Atariaren posizionamendua optimizatzeko eta, azken batean, bilaketen ondoren edukiak eraginkortasunez berreskuratzeko premiari erantzuten dio.

Funts dokumental garrantzitsu bat dagoelako —eta astero elikatzen delako— egin behar izan da **etiketen katalogo estandarizatua**; 2022an osatu zen, 2016tik Arreta Soziosanitarioaren Atarian argitaratutako edukiei esleitutako gaikako terminoak bilduta eta berrikusita.

Etiketen katalogo estandarizatua dinamikoa denez, katalogo horretan jasotako terminoak elikatzen, berrikusten eta arazten jarraitu dugu 2023an zehar; urtearen amaieran, hiztegi kontrolatua 900 termino baino gehiagok osatzen dute, eta ekosistema soziosanitarioan erabilitako hizkeraren mapa kontzeptuala eratzen dute.

¹ 2021ean Arreta Soziosanitarioaren Atariaren zuzendaritza estrategikoa eta argitaratze-kudeaketa Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzari esleitzeak —Osasun Sailaren egitura-dekretuaren arabera— 2022an Arreta Soziosanitarioaren Buletinaren hedapen-prozesua zuzendaritzatik bertatik osatzea ekarri du (eta ez BIOEFetik), Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritzako langileen laguntza eta lankidetzaren teknikoarekin (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza). 2022ko ekainean, Arreta Soziosanitarioaren Buletinaren hedapena aldatu egin zen, eta Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza hasi zen gauzatzen (Osasun Saila), plataforma berri baten laguntzarekin eta Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritzako teknikarien laguntzarekin. 2022ko irailean, bidalketen dinamika optimizatu beharra zegoenez, Arreta Soziosanitarioaren Buletinaren 21. zenbakia hedatzeko beste plataforma bat erabili zen, Osasun Sailaren Informatika Zerbitzuaren laguntzarekin (Eusko Jaurlaritza). Prozesu horretan hainbat aldaketa egin direnez, komeni da hedapen-plataformaren funtzionamenduari, bidalketen entregari eta Arreta Soziosanitarioaren Buletinaren hedapen-zerrendaren optimizazioari jarraipen zorrotza egitea. 2023an egin zen jarraipena: hiru txosten egin ziren 2023ko martxoko, ekaineko eta iraileko hedapen-prozesuen ondoren.

3.2. ARRETA SOZIOSANITARIOAREN BULETINA HEDATZEKO ZERRENDAK

BASS HEDATZEKO PLATAFORMA ALDATZEAREN ABANTAILAK

Arreta Soziosanitarioaren Buletina hedatzeko plataforma hautatzeari buruz hartutako erabakiek (prozesu hori hasiera batean Spot-Hit-ekin osatu zen 2022ko ekainean, eta ondoren Mailrelay-rekin egin zen 2022ko irailetik 2023ko abendura) hobekuntza garrantzitsuak ekarri dituzte Arreta Soziosanitarioaren Buletina bidaltzeko prozesurako eta buletinaren hedapena dela eta lortutako azken emaitzetarako.

Mailrelay-rekin lortutako hedapen-prozesuak funtzionamendu ezin hobea izan duenez, emaitza onak lortzea ekarri du, hedapen-zerrenda bakoitzean gorabeherak eragin dituzten helbideak identifikatzeko eta arazteko aukera eman duelako (prozesu bakoitzean, gutxi gorabehera, ekosistema soziosanitarioko erakundeen eta profesionalen 2.900-3.000 helbide daude).

ARRETA SOZIOSANITARIOAREN BULETINA HEDATZEKO ZERRENDAK ARAZTEKO PROZESUA

2023an, Arreta Soziosanitarioaren Buletin bakoitza hedatzeko prozesuaren ondoren, zailtasunak ikusten dira oraindik ere buletina entregatzeko, "entrega gabe" gisa identifikatutako posta-kontuekin. "Entrega gabe" gisa sailkatutako bidalketen analisiak aldi baterako zailtasunak ditu (sarrerako ontzi beteak, bideratze-arazoez eta abarrek eragindakoak) eta, beste kasu batzuetan, entrega-arazo iraunkorrak (sarrerako ontzi baliogabeak edo ez-aktiboak). Era berean, Arreta Soziosanitarioaren Buletina entregatzeko arazo-motak aztertuta, posta-zerrenden berrikusketa bat egin daiteke (helbideei dagozkien domeinu zaharkituak eguneratu, erretiratutako profesionali dagozkien kontuak kontrastatu eta ezabatu eta abar), eta okertzat identifikatutako bidalketa gehienak araztea lortu da.

Nolanahi ere, helbide okerrak ezabatu, zuzendu eta helbide zuzenekin ordeztuta eta Arreta Soziosanitarioaren Buletina jasotzeko harpidetza berriak eginda, bidalketa bakoitzeko batez beste 2.900-3.000 bat kontu hartzaileko banaketa-zerrenda edukitzea ahalbidetu da.

4. POSIZIONAMENDUA ETA NABARITASUNA

Web plataforma den aldetik, Arreta Soziosanitarioaren Ataria posizionamendu digital naturalaren (SEO) eta nabaritasunaren azterketaren mende dago, zeinak sarean duen egoera eta proiektzioa balioestea ahalbidetzen baitu.

Arreta Soziosanitarioaren Atariak sarean duen posizioa, erabiltzaileek (publikoak) eduki digitalak kontsumitzeari buruzko beste adierazle batzuekin batera, alderdi garrantzitsuak dira EAEko ekosistema soziosanitarioaren iruditerian Arreta Soziosanitarioaren Atariari buruz zer ezagutza-maila dagoen zehazteko, eta, hedaduraz, atariko eduki digitalek ekosistema horretako agenteentzat zer interes- eta erabiltzaritasun-maila duten zehazteko.

4.1. ATARIKO EDUKIEN KONTSUMOA: BISITALDIAK ETA BISITATUTAKO ORRIAK

2023ko urrian Googlek Arreta Soziosanitarioaren Atariarekin lotutako sareko trafikoa eta interakzioak neurtzeko eskaintzen duen web-analitiken plataformari eragin dion aldaketak Universal Analytics-etik Google Analytics 4ra migratzea ekarri du. Aldaketa horren ondorioz, doikuntzak egin behar dira Arreta Soziosanitarioaren Atarian eskura dauden analisi eta jarraipen-analisien metriketan², kontuan hartuta plataforma berriak Universal Analytics-ek serie historiko osorako emandakoez bestelako txostenak eskaintzen dituela (2017ko apiriletik 2023ko abendura, plataforma berriaren jarraipen-metriken ikuskeran aldaketak eginda 2023ko urritik).

Web-analitikak 2023an atarira egindako bisitei eta eduki digitalen kontsumoari buruz emandako datuen azterketak agerian uzten du **bi adierazle zifrek gora egin dutela**. Lortutako emaitzek **Arreta Soziosanitarioaren Atariak aurreko urteetan (2017tik 2022ra) pixkanaka lortutako posizionamendu- eta nabaritasun-emaitza onak gainditu direla** berresten dute.

Arreta Soziosanitarioaren Atariak jasotako bisitak (edo saioak, GA4rako) adierazle baliagarria da plataformak izandako erabilera zenbatesteko. Bisitatat jotzen da **erabiltzaile bat edo robot bat atarira sartzea**. Horrenbestez, bisitari bera behin baino gehiagotan sar daiteke Atarira, eta atarira sartzen den bakoitzean, bisita bat dela jotzen da. Hau da, bisitaria pertsona bera da, baina bisita bakoitza beste bisita desberdin bat bezala zenbatzen da.

2023an, **serie historiko osoko (2017ko apiriletik 2023ko abendura) hileko bisita kopuru handiena izan zuen Atariak, eta 2.937 bisita izatera iritsi da urteko batezbestekoa**. Zifra hori Atariak 2022an izandako urteko batez besteko 2.444 bisita baino zertxobait handiagoa da, eta adierazten du **2023an Atarian argitaratutako edukietara sartu den publikoa nabarmen hazi dela 2022. urtearekin alderatuta (% 16,78 hazi zen 2023an, eta, % 0,65, berriz, 2022an)**. Atarira hileroko egindako bisiten azterketak erakusten du **2023ko hirugarren lauhilekoan izan dela serie historiko osoan Atarira egindako bisita gehien** (2017ko apiriletik 2023ko abendura), eta **2023ko urrian izan duela Atariak urte osoko bisita gehien, 4.358 bisita egin baitira plataformara**, 2017ko apiriletik 2023ko abendura bitartean erregistratu den kopururik handiena.

Ondorioz, bisiten zifren azterketak berresten du **2023an Atariko edukiak bisitatzen dituen publikoa hazten ari dela**.

² Google Analytics-ek emandako zerbitzuak desagertu egin dira, eta duela gutxi (2023ko urrian) web-analitikako zerbitzuak Google Analytics 4ra (GA4) migratu dira. Horrek aldaketak ekarri ditu Arreta Soziosanitarioaren Atariaren jardueraren jarraipenerako funtsezko bi adierazle kudeatzeko eta neurtzeko metodologian: **bisitak eta bisitatutako orriak**. GA4 plataforma berrian, **bisitak saioekin/saio-hasierekin** pareka daitezke (jarduerarik gabe 30 minututik gora egon ostean edo saioaren itzarote-denboraren konfigurazioaren arabera amaitzen den saioaren ID bati lotuta). Horrenbestez, erabiltzaile bat itzarote-denbora amaitu ostean itzultzen bada saiora, beste saio bat hasiko da. **Bisitatutako orriek** dagokienez, adierazle hori partzialki dator bat GA4k kontabilizatutako **ikusitakoak** izenekoekin, eta erabiltzaileek ikusitako web-orri guztiak zenbatzen ditu. Hartara, orri edo pantaila berberera behin eta berriz egiten diren bisitak ere zenbatu egiten dira.

Eduki digitalen kontsumoa zehazteko, kontuan hartzen da bisitari bat Arreta Soziosanitarioaren Atarian zenbat aldiz sartzen den eta zenbatetan kontsultatzen dituen eskuragarri dauden edukiak. Horrela, **konsultatutako edukiek bisitatutako orrialde-kopurua osatzen dute** (edo **ikusitakoak**, GA4 plataformaren arabera).

2023an, **argitaratutako edukiek kontsumoak gora egin duela egiaztatu da, urteko hamabi hilabeteetatik lautan hilean 6.500 eduki baino gehiago³ bisitatu baitira**. Hartara, 2023koari dagokionez, **5.299 eduki kontsumitu dira hilean batez beste Atarian**; 2023ko martxoan eta urrian kontsumitu dira eduki gehien serie historiko osoa kontuan hartuta (2017ko apiriletik 2023ko abendura).


Ondorioz, 2023an igoera nabarmena izan zen Atariak izandako bisita kopuruan 2022koaren aldean; horrenbestez, **berretsi egin da 2023an edukien kontsumoak hilean izan duen hazkundera (% 21,86)**; horrek esan nahi du Atariak publiko fidelizatua duela, zabaltzen ari dena, normalean astero argitaratzen diren edukietara sartzen dena, eta **horrela lortu dela 63.582 orrialde bisitatzea 2023an**.

2023ko urtarrilarekin **alderatuta, bisitatutako orrien kopuruak gora egin du 2023ko abenduan**. Horren **arrazoia da Atariko edukien kontsumoaren igoera ez dela etengabe eta linealki gertatu, baizik eta bilakaeran gorabehera batzuk izan dituela** (zenbait beherakada txiki, bereziki 2023ko uztailan eta abuztuan, eta, neurri txikiagoan, 2023ko abenduan), **bai eta susperraldi progresiboak ere**, bereziki 2023ko azken seihilekoan (2023ko iraila, urria eta azaroan, bereziki).

Arreta Soziosanitarioaren Atariko bisitei eta bisitatutako orriei dagokienez, serie historiko osoko (2017ko apiriletik 2023ko abendura) datuen azterketa zabalagoa egin da, eta, horri esker, aukera izan da ikusteko eta kuantifikatzeko zenbat hobetu diren plataforma horretako edukien kontsumo digitalari buruzko emaitzak, **eta, seigarren urtez jarraian, egiaztatu da 2017ko apiriletik bi adierazleen balioak handitzeko joera dagoela**, nahiz eta zerra-hortzak izan (erorketak) Atariko bisiten eta kontsumoen portaeran aldian behin, batez ere uztailan eta abuztuan, eta neurri txikiagoan, abenduan.

³ Arreta Soziosanitarioaren Atarian hilabete batean 6.000 eduki baino gehiago kontsumitzea ez da lortu 2023ko martxoan baino lehen; hala ere, balio hori berriz ere gainditu egin zen 2023ko irailean, urrian eta azaroan kontsumitutako edukiekin. Hala, hobetu egin da Atarian 2022ko hamabi hilabeteetatik zazpitan kontsumitutako 5.000 edukitik gorako mugarrira, zeina, salbuespenez ere, lortu baitzen 2017ko apiriletik 2022ko abendura bitarteko serie historiko osoko lau alditan: 2018ko otsailan, lehendakariak ASLEak argitaratu eta jendaurrean aurkeztu zituztanean; 2018ko ekainean; 2020ko martxoan, COVID-19aren ondoriozko osasun-larrialdiko egoera deklaratu zenean, eta 2021eko urrian, Lehendakariak EASE 2021-2024 aurkeztu zuenean.

2. irudia 2023AN ETA 2022AN, ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIAN BISITATUTAKO ORRIEN ETA ATARIRA EGINDAKO BISITEN DATU KONPARATIBOAK



Iturria: Bertan landua⁴. Irudia FLATICON.COM-eko baliabideekin diseinatu da.

Aurreko aldiei dagokienez, Atariak 2023an izandako eduki digitalen kontsumoei buruzko datuek **erakusten dute** —2022an bezala— **publikoak kontsumo horiei dagokienez egonkortasun handiagoa duela**. **Portaera horri esker, arindu egin dira Arreta Soziosanitarioaren Buletinen hiru hileko hedapenarekin bat datozen Atariko webguneetara eta edukien kontsumoetara sartzeak eragindako gailurrak**, eta 2022ko hasieratik Atariko bisitak eta kontsumoak **hileroko modu erregularragoan banatzen hasi dira**, eta ez hainbeste noizean behin/hiru hilean behin.

Hala ere, **komeni da azpimarratzea 2023an bi une garrantzitsu identifikatu zirela Arreta Soziosanitarioaren Atariaren edukietarako sarbideetan eta kontsumoetan** (2023ko martxoa eta urria), **proiektu jakin batzuen garapenak duen trakzio-eragin positiboari lotuta** (hala nola Gobernantza Soziosanitarioa hedatzea 2023ko martxoan eta eskualdeko batzorde soziosanitario berriak eratzea) edo **ekitaldi jakin batzuk egiteari lotuta** (Erreferente Soziosanitarioen II. Topaketa 2023ko urrian).

Portaera horri esker, kontsumo digital handia egin da, eta horrek berretsi egiten du **2023an Arreta Soziosanitarioaren Atarian izandako bisiten eta orri bisitatuen hileko kontsumoaren goranzko joera**.

⁴Atarian izandako bisiten/orri bisitatuen urteko hobekuntza-ehunekoari buruzko datuak formula honen arabera kalkulatzen dira:


$$\frac{B \text{ (valor mes XII)} - A \text{ (valor mes I)}}{A \text{ (valor mes I)}} \times 100$$

B: x urteko abenduan izandako bisiten/orri bisitatuen balioa; A: urte bereko urtarrian izandako bisiten/orri bisitatuen balioa.

Udako hilabeteetan, serie historiko osoan ohikoa den bezala, bisita-kopuruak behera egiten du, eta, neurri txikiagoan bada ere, baita bisitatutako orrien kopuruak ere. Hala ere, bi adierazleei dagozkien 2023ko uztaileko eta abuztuko datuak nabarmen handiagoak dira 2022ko hilabete berdinei dagozkien bisiten eta bisitatutako orrialdeen kopuruak baino (3.680 eta 3.966 web-orri bisitatu dira, hurrenez hurren 2023ko uztailean eta abuztuan, eta 3.330 eta 2.830 web-orri, berriz, 2022ko uztailean eta abuztuan. Atarira egindako bisita kopuruari dagokionez, berriz, 1.970 eta 2.256 bisita erregistratu ziren 2023ko uztailean eta abuztuan, eta 1.795 eta 1.435 bisita izan ziren 2022ko uztailean eta abuztuan). Hala, **udako hilabete nagusietan beste hilabete batzuetan izaten diren zifren aldean adierazle horien balioak jaitsi egiten diren arren, 2023ko uztaileko eta abuztuak serie historiko osoko (2017ko apiriletik 2023ko abendura) hilabete horietako baliorik onenak izan dituzte.** Eskura dauden datuen azterketak adierazten du **2023ko hilabete guztietan igo dela Atarira egindako bisiten eta bisitatutako orrien kopurua, eta, ondorioz, udako hilabeteetan ere igo egin dela Atarira egindako bisiten eta bisitatutako orrien kopurua.** Nabarmentzekoa da, halaber, 2023ko udako hilabeteen ondoren berreskuratu egin direla bisiten eta bisitatutako orrialdeen kopurua; izan ere, abuztuan 2.256 bisita izatetik, irailean 3.315 bisita izatera eta urrian, berriz, 4.358 izatera igaro baitzen.


2023ko datu guztiak aztertuta, **Arreta Soziosanitarioaren Atarian gero eta orri gehiago bisitatzeko direla egiaztatzen da, eta, bereziki, 2023ko abenduak datuak aztertuta, zeinak urteko handienak izan gabe ere, serie historiko osoan (2017ko apiriletik 2023ko abendura) abenduan bisitatutako orri kopuru handiena izatera iritsi baitira 5.552 orrialde bisitatu.** Horrek markatzen du, azken finean, aurreko urteekiko alde: izan ere, 2022ko abenduan 4.803 orri bisitatu ziren, eta 4.519, berriz, 2021eko abenduan.

3. irudia **SERIE HISTORIKOA (2017KO APIRILETIK 2023KO ABENDURA), ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIRA EGINDAKO BISITA-KOPURUA ETA BISITATUTAKO ORRIALDEAK JASOTZEN DITUELA, ETA JOERAK**



Iturria: Geuk egina

4. irudia ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIAN BISITATUTAKO ORRIEN ETA ATARIRA EGINDAKO BISITEN 2023KO ETA 2017KO DATU KONPARATIBOAK



Iturria: Bertan landua⁵. Irdia FLATICON.COM-eko baliabideekin diseinatu da.

Adierazi den bezala, atarira egindako bisiten kopuruak ere hazkunde positibo nabarmena izan du, baina bisitatutako orrialdeekin alderatuta, nabarmen txikiagoa izan da hilez hil 2023an erregistratutako bisita-kopurua. Portaera hori hazkunde txiki eta progresibo baten parte da, zeinak bisitarien **fidelizazio-joera baitu oinarri; izan ere, serie historiko osoko eduki-kontsumoaren daturik altuenak erregistratu ditu: 2.937 bisita izan dira urtean batez beste 2023an, aurreko urteetan baino gehiago (2022an 2.444 bisita izan ziren, eta 2021ean, berriz, 2.428 bisita batez beste urtean).**


⁵ Ikus 10. orri-oineko oharrean azaldutako kalkulu-formula.

4.2. BALIABIDE SOZIOSANITARIOEN MAPA

Edukien kontsumoari buruzko azterketan, aipamen berezia egin behar zaio Baliabide Soziosanitarioen Mapari, zerbitzu-informazioaren arlo oso espezifiko bat delako.

Atal hori garrantzi bereziko da, Baliabide Soziosanitarioen Mapan argitaratzen den informazioa Eusko Jaurlaritzaren Datu Irekien Katalogoaren (Open Data Euskadi⁶) barne dagoelako. Ekimen horren bidez, baliabide soziosanitarioen datuak hainbat formatutan jartzen dira eskura, gizarteak, oro har (herritarrek, enpresek eta abar), birbanatu, berrerabili eta aprobetxatzeko.

5. irudia EUSKADIKO BALIABIDE SOZIOSANITARIOEI BURUZKO DATU-FITXATEGI DESKARGAGARRIAK (OPEN DATA EUSKADI PROIEKTUA)



The screenshot shows the 'Open Data Euskadi' website interface. At the top, there is a navigation bar with 'HASIERA', 'OPEN DATARI BURUZ', 'DATU-KATALOGOA', 'NOLA BERRERABILI', and 'KOMUNITATEA'. Below this, there are tabs for 'Datu-bilatzalea', 'Sareari gunea', and 'APIak'. The main content area is titled 'Euskadiko Baliabide Soziosanitarioak' and 'Datuak deskargatu'. It lists datasets for three provinces: Araba, Bizkaia, and Gipuzkoa. Each province has a grid of download links for various file formats (XLSX, CSV, JSON, JSONP, GEOJSON, GEOJSONP) with their respective file sizes. For example, in Araba, there are links for XLSX (172.74 KB), CSV (80.85 KB), JSON (85.44 KB), JSONP (85.44 KB), GEOJSON (100.67 KB), and GEOJSONP (100.67 KB).

Iturria: Open Data Euskadi

Deskargatutako datu multzoen zerrendan, **fitxategien erabilerari buruzko estatistiken arabera, baliabide soziosanitarioak hamaseigarren lekuan zeuden 2023.11.02an** (2021.05.13an, berriz, hamabigarrenean, eta 2022.10.25ean, hogeita bigarrenean), Open Data Euskadiko hogeita bost datu multzo deskargatuaren artetik.

⁶ Open Data Euskadi gobernuaren proiektu bat da, eta 2010. urtetik EAEn datu publikoak irekitzea du helburu. Ekimen pribatuak eta, oro har, herritarrek aprobetxatzeko eskuragarri egon behar duten administrazio publikoen datuak dira. Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak berrerabiltzeko formatuan argitaratzen ditu datuak, hirugarrenek horietatik eratorritako zerbitzuak sortzeko aukera izan dezaten:

- Ekimen pribatuak: merkataritza-asmoko zerbitzuak, herritarrentzako balioa sortzeko xedearekin.
- Beste administrazio publiko batzuk: herritarrentzat baliagarriak diren zerbitzu horizontalak, administrazio eskudunetatik jasotako informazioarekin.
- Administrazio publikoen gardentasuna sustatzeko interesa duten eragileak: kudeaketa publikoa aztertzeko eta ebaluatzeko ekimenak. Proiektu hau sustatzeko helburuak dira, besteak beste, administrazio publikoaren gardentasunaren aldeko apustua, elkarreragingarritasuna sustatzea, informazioa antolatzea eta, azken batean, datu publikoetatik abiatuta balioa eta aberastasuna sortzea.

Eskura dauden deskarga-datuen konparazioak adierazten du 2023ko deskarga-kopurua (895) 2022koa baino % 13,44 gutxiago izan dela (1.034 deskarga egin ziren 2022an), eta 2021ekoa baino % 48,91 gutxiago (1.752 deskarga egin ziren orduan). Zifra horiek erakusten dute bi urteko epean Baliabideen Mapako datuen deskarga-kopurua ia erdira murriztu dela.

1. taula GEHIEN DESKARGATUTAKO 25 DATU MULTZOEN ZERRENDA (OPEN DATA EUSKADI, 2023.11.02)

Ruta de página ...se de pantalla	↓ Vistas	Usuarios	Visitas por usuario	Tiempo de interacción medio	Número de eventos Todos los eventos
	88.637 100 % respecto al total	51.496 100 % respecto al total	1,72 Media 0 %	0 min y 32 s Media 0 %	352.650 100 % respecto al total
1 /catalogo/-/retribuciones-altos-cargos-y-personal-eventual-gobierno-vasco-y-organismos-autonomos-y-entes-publicos/	2.633	2.117	1,24	0 min y 24 s	11.203
2 /catalogo/-/evolucion-del-coronavirus-covid-19-en-euskadi/	2.041	1.178	1,73	0 min y 26 s	7.831
3 /catalogo/-/registro-de-certificados-de-eficiencia-energetica-de-euskadi/	1.910	1.180	1,62	0 min y 34 s	7.618
4 /catalogo/-/relacion-de-puestos-de-trabajo-rpt-de-los-departamentos-y-organismos-autonomos-de-la-administracion-de-la-comunidad-autonoma/	1.480	1.046	1,41	0 min y 31 s	6.237
5 /catalogo/-/promociones-de-etxebide-para-compra-y-alquiler-de-vivienda-prottegida/	1.403	1.107	1,27	0 min y 26 s	5.868
6 /catalogo/-/medios-comunicacion-euskadi/	1.213	661	1,84	0 min y 28 s	4.866
7 /catalogo/-/registro-de-cooperativas-de-euskadi/	1.169	660	1,77	0 min y 22 s	4.449
8 /catalogo/-/centros-de-salud-publicos-en-euskadi/	1.168	871	1,34	0 min y 23 s	4.449
9 /catalogo/-/registro-asociaciones-euskadi/	1.139	865	1,32	0 min y 23 s	4.386
10 /catalogo/-/edificios-judiciales-en-euskadi/	1.105	868	1,27	0 min y 23 s	4.581
11 /catalogo/-/sector-publico-de-la-comunidad-autonoma-de-euskadi-y-entidades-participadas/	959	607	1,58	0 min y 37 s	3.666
12 /catalogo/-/red-de-estaciones-meteorologicas-de-euskadi/	949	595	1,59	0 min y 27 s	3.084
13 /catalogo/-/retribuciones-personal-diputacion/	939	748	1,26	0 min y 22 s	5.355
14 /catalogo/-/calendario-laboral-de-euskadi-para-el-2023/	903	748	1,21	0 min y 24 s	4.073
15 /catalogo/-/estaciones-meteorologicas-lecturas-recogidas-en-2023/	902	539	1,67	0 min y 58 s	3.004
16 /catalogo/-/recursos-socio-sanitarios-de-euskadi/	895	667	1,34	0 min y 25 s	3.721
17 /catalogo/-/estaciones-meteorologicas-lecturas-recogidas-en-2022/	833	442	1,88	0 min y 45 s	2.752
18 /catalogo/-/incidencias-trafico-euskadi/	751	625	1,20	0 min y 20 s	2.822
19 /catalogo/-/aplicaciones/registro-de-empresas-y-actividades-turisticas-de-euskadi-reate/	733	474	1,55	0 min y 39 s	2.768
20 /catalogo/-/biblioteca/hondarribia-biblioteca-municipal/	717	174	4,12	0 min y 30 s	2.642
21 /catalogo/-/catalogo-de-autoridades-de-la-red-de-lectura-publica-de-euskadi/	682	259	2,63	0 min y 33 s	2.530
22 /catalogo/-/alojamientos/	633	397	1,59	0 min y 28 s	2.431
23 /catalogo/-/entidades-locales-de-euskadi/	618	416	1,49	0 min y 24 s	2.313
24 /catalogo/-/linguisticos/texto-refundido-de-la-ley-de-policia-del-pais-vasco/	595	398	1,49	0 min y 15 s	2.442
25 /catalogo/-/ayuntamientos-euskadi/	570	352	1,62	0 min y 23 s	2.244

Iturria: Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritza
(Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila ,Eusko Jaurlaritza)

Atarian bertan egindako kontsultei⁷ dagokienez, Baliabide Soziosanitarioen Maparen edukietara egindako bisitaldien zifrek adierazten dute, 2023an, hilean, batez beste 113 bisitaldi izan direla (2022an aldiz 108 bisita hilean), hiletik hilerako aldeekin; adibidez, 2023ko urtarrilean (106 bisita) eta azaroan (169 bisita) Atariko gehien kontsumitutako orrietatik hirugarrena izan da, baina ez dago gehien bisitatutako hamar orrien artean 2023ko otsailean eta abuztuan.

⁷ Arreta Soziosanitarioaren Atariko Baliabideen Mapako edukien kontsulta-datuei, 2023ko urritik aurrera, Baliabideen Mapako erreferentzia batzuei eragiten dieten indexazio-arazoez eragin ahal izan die, Google.es-ek gobernuko beste orri batzuetan gaizki idexatu dituelako kontsulta-datu horiek (IVAP, HABE edo Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika Saileko Elikagaien Kalitatea). Ez dakigu indexazio oker horiek zergatik gertatu diren. Web Zerbitzuak (Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digaletako Zuzendaritza), 2023ko azaroaren 28an, aldi baterako irtenbide bat proposatu du (6 hilabetean egongo da aktibo): Arreta Soziosanitarioaren Atariko Baliabideen Mapako baliabide guztietan kanonikal bat sartzea, edukien URLan barne-etiketa gisa erabiltzeko, Google.es-ek bikoiztutako edukiak edo ia berdinak detektatzen baditu, URL kanonikoa hauta dezan guztiak ordeztzeko, eta, horrela, haren indexazioa eta posizionamendua lehenetsi dezan. Hau da, Atariaren Mapan argitaratutako baliabide soziosanitarioen indexazioa eta posizionamendua lehenetsi nahi da horrela, jatorrizko iturri izan daitezten. Horrela, gaizki indexatutako aukerek posizionamendua gal dezaten saiatu nahi da, Arreta Soziosanitarioaren Atariaren Mapan argitaratutako baliabideek izan dezaten.

4.3. WEB-IRISGARRITASUNEN IRIZPIDEAK

Arreta Soziosanitarioaren Atarian argitaratutako edukiak baloratzeko orduan garrantzia duen adierazlea da horien irisgarritasuna, batik bat sektore publikoko webgune bateko⁸ edukiak direlako, zeinak web-irisgarritasuneko irizpideen betetze-mailaren jarraipenaren mende baitaude.

2. taula ATARIAREN WEB-IRISGARRITASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN EMAITZEN LABURPENA (2023.11.06KO TXOSTENA)

	Resultado
Puntuación media del sitio web	9.58
Nivel de adecuación estimado	AA
Situación de cumplimiento estimada	Parcialmente conforme

Iturria: Web Irisgarritasunaren Behatokia
(Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa)

3. taula ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIAREN ORRIAK, BALIOETSITAKO WEB-IRISGARRITASUNAREN EGOKITZAPEN-MAILAREN ARABERA (2023.11.06KO TXOSTENA)

Nivel de adecuación estimado	Número de páginas	Porcentaje de páginas
AA	49	96.08%
A	0	0%
No Válido	2	3.92%

Iturria: Web Irisgarritasunaren Behatokia
(Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa)

Helburu horrekin, **2023ko azaroaren 6an, Arreta Soziosanitarioaren Atariaren web-irisgarritasunari buruzko txosten bat** egin zuen Web Irisgarritasunaren Behatokiak (Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioa). Txosten horretan, atariak egokitasun-maila handia duela **berresten da** (batez besteko puntuazioa: 9,58, 10etik), **eta AA⁹ egokitze-maila. Horrek beherakada txiki bat dakar 2022an lortutako 9,68ko batez besteko puntuazioaren** aldean, eta hobekuntza arin bat 2021eko datuaren aldean (9,51 puntu batez beste).

⁸ Irisgarritasun-irizpideak arau honetan ezarritako xedapenen arabera daude zehaztuta: *1112/2018 Errege Dekretua, irailaren 7koa, Sektore publikoko gailu mugikorretarako webguneen eta aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa*, zeinak Espainiako ordenamendu juridikora eramaten baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko (EB) 2016/2102 Zuzentaraua, sektore publikoko organismoen webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa.


⁹Arreta Soziosanitarioaren Atariak berak eskatuta, Web Irisgarritasunaren Behatokiak (Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa) 2023ko azaroaren 6an atariaren web-irisgarritasunari buruz egindako txostenean jasotakoaren arabera: *“Webgunearen batez besteko puntuazioa egoki betetzen diren irisgarritasuneko egiaztapenen kopuruaren erakusle da, hala A egokitze-mailarekin nola AA mailarekin. Beraz, puntuazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta irisgarritasuneko egiaztapen gehiago bete dira. Webgunearen egokitze-maila zenbatetsia (Baliogabea, A edo AA) betetzen diren egiaztapenen egokitze-mailaren mende dago. Akatsak A egokitze-mailako egiaztapenetan piltzen badira, egokitze-maila zenbatetsia “baliogabea” izango da, nahiz eta webgunearen batez besteko puntuazioa altua izan. Webgunearen betetze-egoera zenbatetsia (Ez ados, Zati batean ados edo Erabat ados) webgune-mailako egiaztapen bakoitzaren adostasunaren mende dago (Ez dagokio, Ados edo Ez ados) “*

4.4. POSIZIONAMENDUA GOOGLE.ES-EN

Arreta Soziosanitarioaren Atariak, urte hauetan, posizionamendu digital naturaleko (SEO) estrategia bat garatu du, funtsean, EAEko ekosistema soziosanitarioaren parte den publiko zabal batentzako asteroko edukien hautaketan eta sorkuntzan oinarrituta dagoena, zeinak fideltasun-aztarnak erakusten baititu.

Estrategia horren emaitzek agerian uzten dute **Arreta Soziosanitarioaren Atariak** proiektio ona duela sarean, eta adierazten dute **Google.es-en «arreta soziosanitarioa» terminoarekin egindako bilaketetan nabaritasun-maila handia duela.**

6. irudia EAE-KO ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIAK GOOGLE.ES-EN DUEN POSIZIONAMENDUA, GAILU MUGIKORRETAN ETA MAHAI GAINEKO GAILUETAN EGINDAKO SERP ANALISIAREN ARABERA (2023.11.02)



Iturria: Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritza (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza)

2023an, emaitza horien arabera, Ataria plataforma horren zortzigarren tokian dago mahai gaineko gailuetatik egindako kontsultetan, eta seigarren tokian, gailu mugikorretatik egindakoetan (iturria: SERP analisia, 2023.11.02koa); horrek esan nahi du jaisi egin dela bi gailu horietarako 2022an lortu zuen laugarren tokitik. Horrela, Arreta Soziosanitarioaren Atariak posizionamendu-emaitza baxuenak izan ditu segimendua egiten hasi zenetik (2017tik).

Posizionamenduari buruzko informazioa edukien kontsumoari buruzko datuekin eta Arreta Soziosanitarioaren Atarira egindako bisita-zifrekin osatzen bada, egiaztatzen da Google.es-en posizionamendua okerragotzeak ez duela atzerakadarik ekarri Atariaren nabaritasunari eta erabilerari dagokionez publiko hartzailearen artean.

Mahai gaineko gailuetan Google.es-ek «arreta soziosanitarioa» terminorako emandako emaitzen zerrendan, lehenengo zazpi postuetan izaera eta orientazio desberdinak dituzten web orriak daude (informazioa, dibulgazioa, prestakuntza, etab.), eta ezin dira EAEko Arreta Soziosanitarioaren Atariaren lehiakidetzat hartu atariaren xedea eta hartzaileak kontuan hartuta. Alde horretatik, antzeko ekimen bat

dago lehenengo tokian (ikuspegi, planteamendu instituzional eta lurralde-irismenari dagokionez): Kataluniako Generalitatearen webgune instituzionala, zeinak bere lurralde-eremuko informazio eta baliabide soziosanitarioetarako irispidea eskaintzen baitu. Bizkaiko Foru Aldundiaren webgune instituzionalaren kasuan, bigarren eta hirugarren postuan dago mahai gaineko gailuetan eta gailu mugikorretan, hurrenez hurren, eta informazio osagarria ematen du, Bizkaiko lurralde-eremuan baliabide eta zerbitzu soziosanitarioetarako irispidea erraztuz.

4. taula **WEB-ORRIEN ZERRENDA, MAHAI GAINEKO GAILUETAN GOOGLE.ES-EN “ARRETA SOZIOSANITARIOA” TERMINOIA ERABILITA DUTEN POSIZIONAMENDUAREN ARABERA**

2023		
“Arreta soziosanitarioa” terminoa duten webguneen posizionamenduari buruzko datuak		
Posizioa	Mahai gaineko gailuak	Azalpena
1	https://catsalut.gencat.cat/ca/serveis-sanitaris/atencio-sociosanitaria/	Página web institucional de información y servicios sociosanitarios de la Generalitat de Catalunya
2	https://www.bizkaia.eus/es/tema-detalle/-/edukia/dt/11625	Página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia con información y acceso a recursos y servicios sociosanitarios.
3	https://asispa.org/atencion-sociosanitaria-que-es/	Página web de empresa proveedora de servicios de atención sociosanitaria
4	https://www.todofp.es/que-estudiar/logse/servicios-socioculturales-comunidad/atencion-sociosanitaria.html	Página web del Ministerio de Educación y Formación Profesional, con acceso a oferta formativa en el ámbito sociosanitario (Formación profesional de Grado Medio para la atención a personas en situación de dependencia)
5	https://sede.sepe.gob.es/especialidadesformativas/RXBuscadorEFRED/detalle	Página web institucional del Ministerio de Educación y Formación Profesional, con acceso a oferta formativa en el ámbito sociosanitario (Formación profesional de Grado Medio para la atención a personas en situación de dependencia)
6	https://administracion.gob.es/pag_Home/Tu-espacio-europeo/derechos-obligaciones.html	Página web institucional del Gobierno de España, con acceso a información sobre derechos y obligaciones en la Unión Europea
7	https://sede.sepe.gob.es/contenidos/personas/formacion/certificados_de_profesionalidad	Página web institucional del Ministerio del Trabajo y Economía Social, con acceso a buscador de certificados de profesionalidad
8	https://www.euskadi.eus/atencion-sociosanitaria/	Página web institucional del Gobierno Vasco con información sociosanitaria, incluidos recursos
9	https://www.euroinnova.edu.es/blog/que-es-la-atencion-sociosanitaria	Página web de empresa proveedora de servicios de formación superior, con oferta específica también en el ámbito de la atención sociosanitaria (máster, cursos, etc.)

Iturria: Geuk egina, SemRush-en eskuratutako datuak erabilia (2023.11.2).

Arreta Soziosanitarioaren Atariak bi maila egiten du gora gailu mugikorretatik egindako bilaketetan atariak duen posizioaren analisia osatzen denean, eta seigarren tokian dago; aurretik arreta soziosanitarioari buruzko informazioa duten bi webgune instituzional ditu: bat, Kataluniako lurralde-eremuko (Kataluniako Generalitatearen webgunea) eta, bestea, Bizkaiko lurralde-esparruko (Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunea).

5. taula **WEB-ORRIEN ZERRENDA, GAILU MUGIKORRETAN GOOGLE.ES-EN “ARRETA SOZIOSANITARIOA” TERMINOA ERABILITA DUTEN POSIZIONAMENDUAREN ARABERA.**

2023		
“Arreta soziosanitaria” terminoa duten webguneen posizionamenduari buruzko datuak		
Posizioa	Gailu mugikorrak	Azalpena
1	https://asispa.org/atencion-sociosanitaria-que-es/	Página web de empresa proveedora de servicios de atención sociosanitaria
2	https://catsalut.gencat.cat/ca/serveis-sanitaris/atencio-sociosanitaria/	Página web institucional de información y servicios sociosanitarios de la Generalitat de Catalunya
3	https://www.bizkaia.eus/es/tema-detalle/-/edukia/dt/11625	Página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia con información y acceso a recursos y servicios sociosanitarios
4	https://www.todofp.es/que-estudiar/logse/servicios-socioculturales-comunidad/atencion-sociosanitaria.html	Página web del Ministerio de Educación y Formación Profesional, con acceso a oferta formativa en el ámbito sociosanitario (Formación profesional de Grado Medio para la atención a personas en situación de dependencia)
5	https://sede.sepe.gob.es/especialidadesformativas/RXBuscadorEFRED/detalle	Página web institucional del Ministerio de Educación y Formación Profesional, con acceso a oferta formativa en el ámbito sociosanitario (Formación profesional de Grado Medio para la atención a personas en situación de dependencia)
6	https://www.euskadi.eus/atencion-sociosanitaria/	Página web institucional del Gobierno Vasco con información sociosanitaria, incluidos recursos
7	https://sede.sepe.gob.es/contenidos/personas/formacion/certificados_de_profesionalidad	Página web institucional del Ministerio del Trabajo y Economía Social, con acceso a buscador de certificados de profesionalidad
8	https://www.madrid.es/portales/munimadrid/es/Inicio/Educacion-y-empleo/	Página web institucional del Ayuntamiento de Madrid, con acceso a información relacionada con “Educación y Empleo”(Agencia de Empleo Público, Ofertas de Empleo Público, Bolsa de trabajo)

Iturria: Geuk egina, SemRush-en eskuratutako datuak erabilia (2023.11.2).

Laburtuz, aurreko ekitaldietan (2021 eta 2022) Google.es-en “arreta soziosanitaria” terminoa erabilia egindako posizionamendu-analisien aldean, 2023an lehenengo bederatzitik tokien artean nabarmentzen dira, Arreta Soziosanitarioaren Atariaren beraren aurretik, Arreta Soziosanitarioaren atariaren antzeko gaiak jorratzen dituzten eduki digitalen beste ekimen instituzional batzuk (Kataluniako Generalitatea eta Bizkaiko Aldundia), nahiz eta kasu batean (Bizkaiko Aldundia) lurralde-eremu eta hartzaileak zati batean partekatatu eta, bestean (Katalunia), berriz, ez.

2023an Google.es-en posizionamendu-emaitzek okerrera egiteak adierazten du, proiektuaren proiektzioa galdu dela baino gehiago (izan ere, hilean bisita eta eduki-kontsumoetan emaitza ezin hobek izaten jarraitu du, eta **2023a aztertutako serie historiko osoko —2017ko apiriletik 2023ko abendura— urterik onena izan da**), ekimen digitalen hazkundera izan dela, publikoena (instituzionalak, dibulgazio-, informazio- edo prestakuntza-helburuak dituztela) nahiz pribatuena (zerbitzu soziosanitario edo prestakuntza-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak), zeinek erantzuna ematen baitiete baliabide soziosanitarioen gaineko informazioaren bila dabiltzan hartzaileen interesei eta beharrei, bai eta, beste kasu batzuetan, sektore soziosanitarioan enplegua lortzeko sortzen ari diren aukerei ere.


5. ONDORIOAK

Arreta Soziosanitarioaren Atariak eduki digitalen kontsumoan lortutako emaitzak, *Google.es*-en duen posizionamendua eta horrek ekosistema soziosanitarioko eragilean iruditerian lortutako nabaritasuna, bai eta 2023an web-irisgarritasuneko irizpideetan izandako betetze-maila ere, EAEko Koordinazio Soziosanitarioko Taldeak argitalpen-kudeaketan egindako lan onaren erakusle dira.

Laburbilduz, 2023:

- ❖ Arreta Soziosanitarioaren Atariko eduki digitalen kontsumoari dagokionez, **inoizko urterik onena izan da aztertutako serie historiko osoan (2017ko apiriletik 2023ko abendura), bai eta Arreta Soziosanitarioaren Buletina bidaltzen ez den hilabeteetan ere**. Datuek Arreta Soziosanitarioaren Ataria gero eta jende gehiagok ezagutzen eta kontsultatzen duela berresten dute, eta aurreko urteetan atariak izandako edukien kontsumoa gainditu dela, baita urte horietan Arreta Soziosanitarioaren Buletina hedatu den hilabeteetako ere.
- ❖ Arreta Soziosanitarioaren Buletinek Arreta Soziosanitarioaren Ataria ezagutarazten eta atariko ezagutza sustatzen jarraitzen dute pertsona eta erakunde harpidetu berrien artean; beraz, gero eta gehiago dira Arreta Soziosanitarioaren Atariko eduki digitalak ezagutzen dituzten pertsonak eta horien kontsumitzaileak. Edukiak hedatzeko plataformen hautaketan egindako aldaketei esker, Arreta Soziosanitarioaren Buletina hartzaileen artean gehiago baneratzten ari dela egiaztatzen da –gutxi gorabehera 2.900-3.000 posta-kontu inguru–, Arreta Soziosanitarioaren Buletina jasotzen den egunetan ([22.zk](#), [23. zk](#), [24. zk](#) eta [25. zk](#)) edo bidalketa horren hurrengo egunetan Arreta Soziosanitarioaren Atarira sartzen diren erabiltzaile bakarren kopuruak gora egin duela egiaztatu baita.
- ❖ 2023an egin diren kontsultei buruzko datu orokorrek Baliabide Soziosanitarioen Mapako informazioa Atariko bisitariarentzat garrantzitsua dela eta zerbitzu publikoko informazioa dela (Open Data Euskadi proiektua) bermatzen dute.
- ❖ **Posizionamendu naturaleko estrategiak (SEO) indartzen jarraitu du 2023an ere Ataria arreta soziosanitarioaren arloko informazio estrategiko, gaurkotu edo zerbitzu publikoko informazioaren bila bisitatzen dutenen fidelizazio-prozesua.**
- ❖ Arreta Soziosanitarioaren Atariak behera egin du, 2023an, laugarren postutik (2022) seigarren eta zortzigarreneira (gailu mugikorretan eta mahai gainekoetan, hurrenez hurren), *Google.es*-ek “arreta soziosanitarioa” terminoa jarrita ematen dituen bilaketa-emaitzen arabera. Hala ere, informazio estrategiko, gaurkotu edo zerbitzu publikoko informazioa kontsultatzeko erreferentziatzko leku izaten jarraitzen du, Atariko edukietara izaten diren bisita eta horien kontsumo apartak kontuan hartuta, 2022an lortutako emaitza bikainak gainditu baitira.

7. irudia ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIKO EMAITZEN ADIERAZLEEN BILAKAERA (2017-2023)



Iturria: Geuk egina

ESKERRAK EMATEA

Arreta Soziosanitarioaren Ataria ez litzateke deus izango, sei urte hauetan inoiz plataforma hori EAEko eta kanpoko arreta soziosanitarioaren arloko erreferente estrategiko, informatibo eta dokumental bihurtzen lagundu duten pertsona guztien ahaleginik gabe.

Hala, babesa eta laguntza eman dutenak asko diren arren, aipamen berezia merezi dute Antolaketa eta Informazio Sistemetakako profesionalek (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza), Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritzako profesionalek (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Eusko Jaurlaritza) eta Hizkuntza Normalkuntzako Zerbitzuko profesionalen zerbitzua (Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza), beren jardun profesional emankorrari esker Baliabide Soziosanitarioen Mapa eta eduki estrategikoak egunean eduki ahal izan direlako, plataformaren edukietan tratamendu elebiduna bermatuta egon delako, eta kudeaketa eta aholku teknikoak ere eskaini dizkigutelako maiz.

Guzti-guztiei, aurten ere, eskerrik asko.

**EAEko Koordinazio Soziosanitarioko taldea
2024ko urtarrilaren 2a**

ARRETA SOZIOSANITARIOAREN ATARIA: EDUKIEN EDIZIOARI ETA KUDEAKETARI,
NABARITASUNARI ETA POSIZIONAMENDUARI BURUZKO TXOSTENA (2023)

EAEko Koordinazio Soziosanitarioko taldea
2024ko urtarrilaren 2a

OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección Atención Sociosanitaria

